

6. ANIMALIAK LORENTXOREN BUKAERAKO GUTUNA

Zaunk, zaunk, zaunk!

Zaunk, zaunk, zaunk? Zaunk, zaunk!

Honezkerotik erotu naizela pentsatuko zenuten, ezta? Izan ere, animaliak gora animaliak behera, Argiren antzera hasi naiz ni neu ere.

Ikasi dituzue ezta? Argik zaunk-zaunk, lehoiak orro-orro, txoriak txio-txio! Ze ederto! Nahi duzuenean, animalien hizkuntzan berba egin dezakezue!

Ikasi duzue non bizi diren animaliak? Bai? Orduan azkar!! Non bizi dira txerriak? Eta behiak? Eta astoak? Tik-tak, tik-tak, tik-tak.

OSO ONDO! BASERRIAN!!!! ETA NORTZUK BIZI DIRA
BASERRIAN?

Argi, ez! Argi Beñat eta Iratirekin bizi da! Aitaita Joxe eta amama Maria bizi dira baserrian. Nahi al duzue berarekin batera baserrira joan? Baserritarren mundua ezagutu?

Goazen bada... eta bukaeran eskulan erraldoi bat egingo duzue! Aitaita Joxe eta amama Mariaren baserria, animaliak, ortua, elikagaiak...

Ondo pasatu...
zaunk-zaunk!

Lorentxo

